

Onuraduna

- **Enpresari indibiduala eta Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kidea** (betiere diru-laguntza norbere izenean eskatzen bada).
 - EAEn errolatua eta bertan bizitea. (*)
 - Enpresa jarduera eta egoitza fiskala ere EAEn. (*)
 - **EJZn alta emateko egunaren bezperan lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.**
 - EJZn eta Gizarte Segurantzaren **alta** eman izana **2022eko azaroaren 1etik eta dirulaguntza eskatu den egunera arteko epean.**
 - Diru-laguntzen **lerro honen** beraren **onuradun ez izana** aurreko deialdietan.
 - **Autoenplegurako** beste **dirulaguntzarik jaso ez izana.**
- (*)Baldintza horiei eutsi beharko zaie, gutxienez, diruz laguntzeko epea amaitu arte.

Zenbatekoa

- Onuradun bakoitzak, **gehenez ere, 2.500 euro** jasoko du.
- Zenbateko hori **%15**ean areagotuko da eskaera aurkezteko unean **19-29 urte** baditu eta beste **%15**ean **emakumea** bada.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kideen multzorako 6.000 euro izango dira, gehenez.

Diruz lagunduko diren gastuak (sustapen-, funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuak)

- Autonomoen kuota.**
 - Komunikazio gastuak:** Publizitate- eta merchandising-kanpainak, saltoki eta ibilgailuen errotuluak, errotuluen argiztapena eta diseinua.
 - Web-orrien eta sare sozialen mantentze-kuotak**, publizitate **bannerrak** beste enpresa baten web orrian, web-orrian **pluginak** sartzearekin loturiko gastuak, web-orriaren **domeinua** eta posta elektronikoa eta **Facebook** sustatzeko zerbitzuen kostua.
 - Aholkularitza** (zerga-, lan-, kontabilitate- edo administrazio-arloan, arlo juridikoan edo negozioaren kudeaketaren arloan, liburu-edukitzaitzarekin eta eguneroko zerga- eta kontabilitate-arloko betebeharrekin loturikoak, lan arriskuekin loturikoak, erakuslehoak aldatzeko eta hobetzekoak...) eta **coaching**-gastuak .
- Ekintzaileak eginiko **prestakuntza-ikastaroak**, zuzenean enpresa martxan jartzearekin lotura dutenak.
 - Negozio-lokalen **errentamendua**.

Gastuak 10 hilabetez lagunduko dira diruz,

- a), d) eta f) diru-laguntza onartzen duen **ebazpena** jakinarazi eta **hurrengo egunetik** aurrera zenbatzen hasita (autonomoen kuota, aholkularitza, coaching eta errentamendua)
- b), c) eta e) EJZn alta ematen den egunetik aurrera sortu eta ordaindutakoak (komunikazio gastuak, web-orrien eta sare sozialen mantentze-kuotak, bannerrak, pluginak, domeinua eta Facebook, eta prestakuntza-ikastaroak)

Dokumentazioa

- Eskaera dokumentua (V eranskina).
- EJZn alta ziurtagiria.
- Autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta ziurtagiria.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren eraketa dokumentua, hala badagokio.

Eskaera egiteko epea

- **2023ko ekainaren 3tik 2023ko urriaren 31a arte.**

Laguntza-eskaerak ebatziko dira aurkeztutako ordenaren arabera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte